



# Aiaraldea ezagutzeko txangoak





# Aiaraldea ezagutzeko txangoak

Eskualdeko txoko ezberdinak ezagutzeko proiektu xume hau 2020ko uztailean eraikitzen hasi ginen eta urte bereko abuztuaren hasieran argia ikusteko pentsatutako proiektua zen arren, gauza bat eta bestea dela eta 2021eko abuztuan argitaratu behar izan dugu.

Lan honen bidez, Kirikinetik familian zein lagunartean egiteko txango proposamen batzuk luzatzea da, beste aisialdi eskaintza bat sortzeko, askotan kanpokoak ezagutzen direlako eta etxeakoak ez. Txango batzuk ezagunak dira eta beste batzuk lan hau osatu bitartean berreskuratu ditugu.

Aiaraldea ezagutzeko txangoan proiektua eskualdeko jende ezberdinak osatua da, nork bere denbora librea eta jakinduriak eskainiz, auzolanean eraikitako proiektu bolondresa, batzuk dakitena beste batzuek eskura ego dadin eta goza dezaten.

Ibilbidearen  
inguruko  
informazioa:





# Lamuza-Arraño naturgunea

## Laudioko Lamuza parkean Ingurunea argazkitan


ingurune natural ederraz gozatzeko aukera dago eta hau Arraño inguruarekin elkartzen denean gune berezi hau sortzen da, herriko plazatik 5 minutura dagoen arnagunea.

Hamaika bide gordetzen ditu Lamuza-Arraño naturguneak, hori dela eta, ibilbide konkretu bat proposatu ordez, bide ezberdinetatik gozatzera gonbidatzen zaituztegu.

Bide ezberdinetan iturriak daude, eta zonaldearen arabera den arren, adin guztietarako ibilbideak daude. Zenbait guneetan bidea nahiko estutzen da, baita aldapatsua bilakatu ere.





## Intereseko webgunea

Naturguneako landareen inguruko informazio ugari biltzen du [lamuzanaturgunea.blogspot.com/atariak](http://lamuzanaturgunea.blogspot.com/atariak).



Lamuza naturgunea  
webguneako irudia.

Eskaneatu  
webgunera  
heltzeko:





# Zolloko urtegiari bira

**Aiaraldeko txoko  
ezberdinak  
ezagutzeko  
proiektu honen  
lehen geltokia,  
Arrankudiaga-  
Zolloko urtegiari  
bira emateko  
proposamena  
luzatzen digu**




Ingurune lasaia da, zuhaitzen geriz-pea nagusitzen den artean, bide errez baten bidez eman daskioke bira urtegiari. 5 urtetik gorakoentzako ibilbidea izan daiteke, ura eta arropa eroso lagun ditugularik.

Ibilbidearen alde teknikoari dagokionez, 168metroko aldaera du eta 6,5 kilometroko luzeera, Zolloko plaza-tik zenbatzen hasita, izan ere, bertatik planteatzen dugu ibilbideari hasiera ematea. Urtegiraino aukera dago txirrindulaz joateko, errepide gaineko bidea baita.

Ibilbide honetan ez da iturririk. Etxetik eramaten ditugun gauza guztiak jaso beharko ditugu eta gurekin batera hurbileko zaborrontzi bateraino eramane beharko ditugu, izan ere, ingurune natural eder honetaz gozatzeko jarraitzea gure esku baitago. Bertoko animalia nahiz landareak errespetatu eta zaintzea ezinbestekoa izango da ibilbidean zehar.

## Ibilbidea argazkitan



## Bideoan ikusteko:



## Ibilbidearen mapa





# Iturrigorri, ibilbide borobilean


**Menerdigako eta Barrerillako mendatean zehar ibilbide borobila eta Cueva Llanako kobazuloko ibilbidea Lendoño Goikotik, abiapuntu**

Ibilbidearen erdia zuhaitzen inguruan egiteko aukera dugu, beste erdian ordea, eskualdeko ikuspegi ezberdinak. Lendoño Goikoan kokaturik dagoen apartakalutik proposatzen dugu ibilbidearen hasiera.

8 urtetik gorakoentzako ibilbidea da, zeinean arropa eta oinetako erosoak eramatea komenigarria den. Iturria dagoen arren, ura eramatea gomendagarria da, izan ere, ibilbide luzetxo da. Gailurra 1.073 metrora aurkitzen da eta ibilbideak guztira, 12-12Kmko luzera du, aldaera aldiz, 800 metrokoa da.

Bertako animalia nahiz landareak errespetatzea eta zaintzea ezinbestekoa izango da ibilbide osoan zehar.

## Ibilbidea argazkitan



*Kikomendiren irudiak.*

## Ibilbidearen mapa





# Goikogane mendira ibilaldia

Ibilbidea argazkitan


Laudioko Lusurbeilanda auzunetik abiatzen da ibilbidea. Seinalizazio ona dago eta hasieran iturri naturala dago. Ibilbide gehiena pista da eta tarte batzuetan malkartsu bilakatzen da bidea, 7 urtetik gorakoentzat aproposa.



Ibilbidearen inguruko informazioa:





A person wearing a blue hoodie and a dark face mask is standing in a cave, holding a smartphone to illuminate a vertical rock face. The rock face is textured and appears to be a natural rock formation. The lighting is focused on the rock face, creating a bright spot against the darker cave walls. The person is looking at the phone, which is held up to the rock face.


# Aretxarroko kobara txangoa



## Okondoko Ugalde auzunetik abiatzen da Aretxarro inguruan kokaturik dauden kobetarako txangoa, familian edota lagunartean egiteko plan aproposa

Ibilbideko lehen urratsak, Okondoko Ugalde auzotik abiatuko gara eta bertatik lehen urratsak eman eta gero basora sartuko gara. Basoko ibilbidea zuhaitz artean da, eta al-dapa txiki ezberdinak ditu. Bidean aurrera jarraitzeko itoak edo harri multzoak daude. Ibilbideak guztira 4,2Km -ko luzera du eta 138m -ko aldaera dago bide osoan zehar. Txango hau 5 urtetik gorakoek egiteko modukoa da. Beharrezko materialen artean, ura eta arropa erosoari, esku-argia gehitu beharra dago. Koba errekarra heldu aurretik dago, sarrera ez da oso handia.

### Ibilbidea argazkitan



### Ibilbidearen mapa

Bideoan ikusteko:





# Urduñatik Tertangako etxera





**Urduñako La Antiguatik abiatzen da Tertangarainoko txangoa. Bide nahiko zabala da eta 5 uretik gorakoek egiteko modukoa da. Iturriak daude pare bat kilometroko luzera duen ibilbide honetan.**

Bidea nahiko laua da eta bizikletaz egiteko aukera dago.

Tertangako etxean era parte hartzailean eta auzolanean eraikitako jolasparkea dago, baita frontoia ere:



### Ibilbidea argazkitan



### Ibilbidearen mapa



**Ibilbidearen inguruko informazioa:**



Info.+ [kirikinotaldea.eus/txangoak/](http://kirikinotaldea.eus/txangoak/)



14

Mila esker proiektu honetan era batera edo bestera lagundu duzuen guztioi, zuek gabe ez litzateke posible izango. Esker bereziak Aaron Garmendiari ibilbideak aukeratzen, mapeatzen eta zalantzak argitzen laguntzeagatik.

Proiektu hau auzolanean eraikia dago eta era autogestionatuan finantzatua izan da, edozeinen esku izateko edukiak izan daitezten.

Irudiak *Kikomendirenak* dira, "*Tologorri ibilbide borobilean*" txangoan, *Lamuza-Arraño naturgunea webgunetik* orkidearen argazkia eta gainontzeko irudiak eta ilustrazioak *Ander Fernandezek* eginak dira. Mapak, Wikiloc bidez.

**Kirikino Atsedeen Taldea Elkarte**

erredakzioakirikino@gmail.com

688 72 66 65

**[Kirikinotaldea.eus/txangoak](http://Kirikinotaldea.eus/txangoak)**

